

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Txikizkako merkatarientzat negozioaren diagnostiko-programan parte hartzeko epea luzatu da

*Garapen Ekonomikoko Departamentuaren ekimen honen bitartez, saltokien egoera sakon aztertzeaz gain, kudeaketa hobea egiteko gomendioak eskaintzen dira*

Asteartea, 2018.eko irailak 18

Programari esker, 12 txikizkako edo hurbiltasuneko saltokik beren ezaugarriak eta negozio-eredua aztertzeko eta hobetzeko detektatutako eremuen gainean jarduera-plana egiteko aukera izango dute. Garapen Ekonomikoko Departamentuak programan parte hartzeko epea luzatu du.

Zehazki, saltokiaren eraketa eta jarduerarekin zerikusia duten alderdi guztiak sakon aztertzeko diagnostiko-zerbitzua eskaintzen da, eta, era horretan, indarguneak eta ahulguneak zeintzuk diren ikus ahal izango da. Saltokiari buruzko datuak bildu eta aztertu ondoren, parte-hartzaile bakoitzari gomendio tekniko batzuk egingo zaizkio kudeaketa berritzeko eta optimizatzeko.

Diagnostikoa Nafarroako Merkataritza Ganberako profesional-taldeak egingo du. Nafarroako Gobernuak programaren %80a finantzatuko du. Programan parte hartzeko epea irekita egongo da harik eta aurreikusitako 12 negozioko kupoa bete arte.

### Nola parte hartu?

Parte hartu nahi duten establezimenduek eskaera [inprimaki](#) honen bitartez aurkeztu beharko dute eta posta elektronikoko bidez helbide honetara bidali: [ipuncel@camaranavarra.com](mailto:ipuncel@camaranavarra.com). Era berean, informazio gehiago eskura daiteke [www.comercio.navarra.es](http://www.comercio.navarra.es) web orrialdean eta 948 077 070 telefonoan (luzapena: 1153), 8:30etik 17:00etara bitartean.

Ekimenean parte hartu ahal izango dute 47.11 eta 47.79 taldeetan (EJSN-2009) jarduera duten Nafarroa osoko establezimendu komertzialek; edonola ere, baldintza hauek bete beharko dituzte: bi urtetik gorako antzintasuna izatea, udalerrri bateko hiri-bilbean kokatuta egotea, mikroenpresa edo enpresa txikitzat hartzea eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.

Jasotako eskaerak aurkezpen-ordenaren arabera onartuko dira, eta eskualde bakoitzeko kupo hauek egongo dira: Iruña eta eskualdea, bost saltoki; Tuter, bi saltoki; Ipar Mendebaldeko Nafarroa, Pirinioak, Lizarra aldea, Nafarroako Eki-erdialdea eta Erribera, saltoki bat bakoitzeko.

Programa [Hurbileko Txikizkako Merkataritza Planean](#) kokatzen da. Nafarroako Gobernuak otsailean onartu zuen, eta Planaren lau jarduerar-datzetariko bat da sektoreko eteen lehiakortasuna hobetzea.

## **Zer eskaintzen da?**

Zehazki, diagnostikoaren prozesuan sei urrats sartzen dira. Lehenik eta behin, establezimenduari buruzko oinarriko informazioa biltzen da: forma juridikoa, egitura, eta, tutorearen laguntzarekin, negozioaren profil orokorraren zirriborroa egiten da, sorrera, finkapena eta bilakaerari buruzkoa.

Jarraian, bestelako informazioa biltzen da: establezimenduaren ezaugarri fisikoak eta barneko nahiz kanpoko diseinua, antolaketa eta produktu-aukera edo erreferentziazko merkatua eta kokatutako lekuko eragin komertzialaren eremua.

Halaber, bezero-mota nagusia identifikatu eta deskribatuko da, ematen zaion arreta-zerbitzua kontuan hartuaz, online zerbitzua barne.

Ekonomiaren ikuspegitik, irabazi-marjinak, urteko fakturazioaren bilakaera eta produktu edo zerbitzu bakoitzeko segmentazioa aztertuko dira, inbertsio berriak egitea komeni den ala ez aztertzearekin batera.

Azkenik, txosten bat egingo da prozesatutako informazioa zehaztuaz eta ondorioak eta hobetzeko detektatutako lehentasunezko eremuak adieraziaz.